



Txi Txi Li Ba Kio

0 zenbakia 1986ko ekaina
100pzta



* ELKARRIZKETAK :

Itziar Ajuria

Ondarza

* TESTUAK

* ARTIKULUAK :

Euskara Batzordea

Eta Gaztetxea, zer?

* DENBORAPASAK :

KAIÑO!

Bai, hemen gaituzue. Zenbait hilabete pasa ondoren, iritsi gara Elgoibarren aldizkari bat euskara hutsean egitera.

Elgoibarko Izarreko Euskara Batzordeak, beste ekintzen artean pentsatu zuen herriak behar zuela euskara hutsean argitaratutako aldizkari bat.

Euskara Batzordeak ideia hau aurrera eramateko gazte talde bat zela egokiena pentsatu zuen eta horrela Elgoibarko gazte batzuk Euskara Batzordeko aldizkari taldea sortu genuen.

Eta gure lehen fruitua duzue "Txitxilibakio"ren zero zenbaki. Baina galdetuko diezue zuen buruari zergatik jarri ote diogun izen hori.

Urain dela urte batzuk, Elgoibarren ibiltzen zen Txitxilibakio izeneko eskale bat eta guk hori nahiko genuke aldizkari honekin:

Txitxilibakio aldizkaria euskararen aldeko eskalea izatea.

Gure lehen helburua bete dugu, eta gure asmoak ez dira gehiegiak, bakarrik Elgoibarko jendearengana hurbiltzea euskararen bidez.

Aldizkari hau ezingo zen argitaratu "Ungarri" eta beste hainbat pertsonaren lanik ez balitz izan, halere "Txitxilibakio" hobetzeko ideiak eta lanak ba dituzue, eskertzen dizuegu lotzik gabe bidaltzen badiguzue, zeren guretzat laguntza handikoak izango dira.

Zuena eginga duzuelakoan, agurtzen da :

**ZUEN LANAK
BIDALTZEKO:**

San Frantzisko 24ean

(Loritoko ikastola)

GAITUZUE.




TXITXILIBAKIO

Argazki saioa




Argazkiak: Imanol Garcia



Ongarri_{ri} esker

EUSKARAREN ALDE LANEAN

EUSKARA BATZORDEA



Orain dela lau-
edo host urte Ubitar
te aretoan bilera --
bat egin ondoren eug
karazale batzu elkar
tu ginen eta Elgoi--
barko "Euskal Herri-
an Euskaraz" taldea=
sortzea erabaki genu
en.

Talde honek ha-
sieratik hiru bat --
helburu jarri zigki-
on bere buruari:

1.- Herrian eus-
kara indartzeko ekin-
tza batzu egitea.

2.- Udaletxean=
Euskara Batzordea --
sortzea.

3.- Euskaltokia
eratzea.

Garai hartan e-
kintza gehiegi ez e-
ginarren batzuk ---
egin genituen eta hē
men ez gara aipatzen
hasiko.

Udaletxean bada
go kultur Batzordea-
ren barruan Euskara-
ren Azpi Batzordea e-
ratua. Azpi Batzorde
honek urtebetez lang-
an ibili zen, eta po-
rrot egin zuela aipa-
tu behar dugu. Dina-
mika faltak lur jota
utzi zuen lan talde-
hau. Gaur praktikan=

ez du funtzionatzen,=
garai hobeaoren zai
dagoela esango genu-
ke.

Euskaltokiaz bi-
lera asko egin ondo-
ren, erabaki zen baz-
kideak bilatuaz eta=
hauek dirua ininiaz=
ezingo genuela eus-
kaltoki bat sortu, =
diru asko eta jende-
gutxi izango ginela-
ko batetik, eta bes-
tetik irekia izatea=
bal dintza beharrezko
tzat jotzen genuela-
ko.

Gai hau zela --
eta "Arrasate Euskal
dun dezagun" (AED) =
taldearekin harrema-
netan jarri ginen. =
Gai honetaz Arrasa-
ten Udalak eskeinita
ko lokal batetan eus-
kaltokia sortua zu-
ten, horretatik baz-
kiderik ez zuten be-
har eta lokal irekia
zen, sartzeko baldin-
tza bat jartzan zela
rik: euskaraz hitze-
gitea. Esperientzia=
hau positibotzat jo-
zuen taldeak era nen-
tsatu zen bide hori=
hartzera zela egokie-
na.

Euskal tokiaren
esperientzia en be--

rri emateko AED-eko=
liberatuari hots egin
genion eta horrela U
bitarte aretoan bile-
ra antolatu genuen. =
Liberatu honek Eus-
kaltokiaren planteam-
entua beren planteam-
entu globalaren barruan
kokatu zuen. =
Taldekako partaideek =
planteamentu global-
horren aurrean nen-
tsatu genuen euskal-
tokiaren aurretik, =
beharbada, guk ere =
planteamentu global-
bat egin behar genu-
ela Elgoibar euskal-
duntzeko eta planteam-
entu horren barruan
joango litzatekeela=
euskaltokiaren arazo
a.

AEDren plana --
gustatu zitzaigunez,
planteamentu berria=
egin behar genuela e-
rabaki genuen eta ho-
rretarako plangintza
berri bat osatu genu-
en:

1.- Nahi ta nahiezko
a zela "Euskal Herri-
an Euskaraz"ko talde
a handitzea partaide
etan eta ideologian.
2.- "Euskal Herri-
an Euskaraz" siglak us-
tea, nahiz eta izni-
ritua eta lotura jar-
raitu, batzuentzat=

talde honek kutsu -- ideologiko konkretu= bat zuelako, edota = hori ikusi nahi zute lako. Gauzak horrela zeudelarik Elgoibar= ko izarrari lan hau= aurrera eraman ezan eskatu genion, beti= denik Elgoibarko Iza= rrak Euskara eta Eus= kal Kultura izan --- bait du helburutzat. 3.- Elgoibarko Iza= rrak proposamena o= nartu zuen eta bere= egituran azni batzor= de herri bat sortu = zuen. Azpi batzorde= hau litzateke Euska= ra Batzordea.

4.- Pauso hau aurre= ra eman ondoren par= taide bila hasi gi= nen. Gure helburua = jende heterogeneoa = bilatzea zen, bai -- lanbide arloan, bai= ideologian. Helburua bete genuelakoan gau= de. Gaur hamabosteko taldea astelehenero= elkartzten gara "lori= to" gelan gaueko be= deratziatan. Orain= dik ere, noski, nor= baitek sartu nahi ba= lu ateak irekita leu= deke.

Euskara Batzordearen plangintza.

Bigarren etapa= honetan plangintza = orokor baten beha= rra sentitu genuen.

Helburu nagus= ia eta bakarra El= goibar euskalduntze= a, berreuskalduntze= a eta Euskara norma= lizatzea izango li= tzateke.

Aurreko urtee= tako esperientziak, Tolosakoak eta bati= pat Arrasatekoak -- kontuan harturik -- plangintza hau osa= tu genuen 1983. go = udazkenean:

1) "Euskara = Aurrera" kanpaina.=

2) Herrian e= giten diren ekintze= tan, ahal dugun edo= uzten duguten neu= rrian, euskararen = presentzia gehitzen ahalegindu: Olentza= rotan, Gabonetako A= zokan, Erregeetan, = Mugerza krosean, -- e.a.

3) Pertsona = publico, estamentu= eta hainbat taldere= kin harremanetan ja= rri euskararen pre= sentzia indartzeko.

4) Euskaltoki= aren ametsa erreali= tate bihurtu.

5) Elgoibar = mailako aldirkaria= sortu.

6) Sektoreka hasi la= nean: Administrazioa. Herria: denda, taber= na, sozietate, dirue= txe...
Ian mundua: lantegi= ak.

Irakaskuntza.

7) Mahainguruak gai= konkreto bati buruz.

8) Zazpiki irratian= saioak.

Programa edo = plangintza zabal, lu= ze eta anbizioso ho= netako puntu guztiak landu gabe dauzkagu= oraindik. Batzuk mar= txan jarriak dauzka= gu eta beste batzuk=

noiz helduko diogun= zai.

Egin dugun guz= tiaren berri ematea= luze eta aspergarri= izango litzatekeela= uste dugu. Labur e= sango dut zertan ari= garen momentuan.

Euskara aurre= ra kanpainaz, beste= orri batetan esnika= tzen dugu zehatz= me= hatz.

Sektoreka has= teko asmoarekin ga= biltza momentuan eta denei batera ezin ge= nienez heldu, herri= sektoreari helduko = diogu eta orain ari= gara prestatzen plan= gintza. Sektorekako= lan honekin gertuago= heltzeko asmoa dugu.

Mahainguru bat= egin genuen Ekainean beste batzuk ere an= tolatzeko asmoa badu= gu.

Zazpiki irrati= a erabili genuen uda= aurretik, berriro i= rekitzen dutenean uz= ten badigute erabil= tzeko asmotan gaude.

Egin dugunare= kin luza daiteke ze= rrenda. Dena dela e= gin dugun lanik han= diena "Euskara Aurre= ra" kanpaina antola= tzea izan da.

Bere lantegi txiki eta ilunean aurkitu dut Hondarza lanean. Tornua ren ondoan jarduten du egunak ematen dizkion hainbat ordu luzez. = Esku zahalez hirtzen nau, baina elkarrizketa bat egiteko asmotan = etorri nazkiola esaten diodanean nahiko ekspresio arraroa jarri du. Bere hitzek interes haundiegirik ez dutelakoan dago. Nik, ordea, = ez diot kasu haundiegirik egin. Berak badu ezer kontatzekorik

HAMAIKA GALDERA

ONDARZARI

- Geldera: Munduan = zehar hainbat lekuta tik ibilia zara, ma- kin bat leku ere e- zagutu dituzu, baina zer bultzatzen zai- tu bidaiak egitera? = Zer bilatzen duzu be- raietan?

- Hondarza: Ametsak- dira leku batetik -- bestera eramaten nau tenak. Beraietan bi- latzen dudana amets- hauen burutzarena e- do errealizazioa da.

- G: Noiz eta nora = izan zen zure lehe- nengo irtenaldia?

- H: Lehenengoa 68. = urtean izan zen. Pe- nintsula osoetik ibi- li nintzen Portugal- dik ari.

- G: Eta luzeena?

- H: Luzeena Indiarra orain ninduenan izan zen 1980. urtean.

- G: Badirudi Indiak ibiltari eta abentu- rale eskorentzat, = zerbeit berezia du- la...

- H: Atrakzio arraro bat du. Eta beharba- da atrakzio hori es- pirituale izan daite- ke.

- G: Hainbeste ibi-



Foto: PACO GABILONDO

laldiren artean, ari- an arazoak ere sotu- ko zitzazkizun.

- H: Hurre ustez bida- ia baten arazoak teo- rian daude. Ideiak = eta ametsak prakti- kan jartzean arazo = guztiak atzean geldi- tzen dira. Kotxila = bat edo manta soil = bat eta ibiltzea, i- biltzea heldurrik au- sardirik gabe. Hel- dutasunaren bidetik- hasatzen den norbai- ten edo zerbaiten -- garbitasun eta sin- pletasunarekin ibil- tzea.

- G: Arrisku berezi- rik nasatu al dituzu?

- H: Arriskuak tornu- aren ondoan edo Elgo- ibarko sozietate "e- rrespetagarri eta i- reki" honen elkar bi- zitzean gertatzen di- renak baino askoz -- haundiagoak ez dira- izaten.

- G: Ezagutu dituzun herri, kultura eta = jende guztien arte- tik zein izan da ge- hien inpresionatu e- do gustatu zaizuna? =

- H: Herri guztiek, = kultura guztiek eta = jende guztiek dute =

beren interesa. Hone gatik nahiko zaila e giten da galdera hau zehazki erantzutea.= Beharbada Egipto, In dia...

- G: Pentsatzen dut= makina bat anekdota= eta gertaera bereizi ere kontatzeko badi= tuzula.

- H: Anekdotak ugari ak dira, oso ugariak. Ez dakit, momentu ho netan batzuk baka--- rrik etortzen zaiz--- kit burura. Adibidez baten, euriz blai--- blai egin sartu nin tzen Mallorkako eli go batetara. Eleiza= ko jarlekuen artean, nire errota busti---

ekin "sekadero kol-- gente" inprobisatu = bat egin behar izan= nuen. Hau izan da -- kaltzontzilloetan en tzun dudan meza baka rra.-

Beste batean, nire = nasaporte "maiteaga= tik" sorturiko nahag keta narregarri bat= eduki zuen polizia = suizarrak. Momentu = batean tornero beha rrean "torero" bila katu nintzen. Gehia= go kontatuko nizuke= baina luzeegia egin= go litzateke...



Bidaiak alde bateta= ra utzi, eta elka--- rrizketa bukatzeko = beste pare bat galde ra egiten dizkiot.

- G: Mendiak badu be harbada zuretzat esa nahi berezirik?

- H: Bai, baina ez = dakit nola esplikatu. Bertan libertatea ez da asfaltuan bezala= ko hain hitz abstrak tua.

- G: Zer da gehien = eta gutxien gusta--- tzen zaizuna pertso na batengan?

- H: Uff, hori da -- galderia. Pertsona = baten gehien gusta= tzen zaidana "gusano inmorale" banketera hain osasuntsu bul--

tzatzen duen bere -- preparazio fisikoa = da. Gutxien gusta--- tzen zaidana bere -- pertsonarenganako er lazioa da.

- G: Eta bukatzeko, = definituko al zinate ke pertsona bezala? =

- H: Ez nizuke galde ra hau erantzuten ja kingo. Izan daiteke= nire indefinizioa -- pertsona bezala, bi zitzta bera ere inde finiblea bait da, gu re limitazioa beha= rrezkoenetik ihes e giten bait du.

Eskerrikasko Hondar za. Oso atsegiña i= zan da.



MORKAIKO

BALDAN GORA BALDAN BEHERA

Morkaiko, daki-
zuenez Elgoibarko --
mendizale elkartea =
da. Elkartea honen =
ekintza edo eginbeha
rra mendizaletasuna=
zabaltzea eta jentea
nolabait mendirantz=
bultzatzen da. Hone-
tarako zenbait akti-
bitate agertzen ditu
urtero: txangoak, a-
kanpadak, filmak, --
txarлак, ibilaldi ne
urtuak...

Goazen orain --
Morkaikoren sorkun-
tza eta historiala =
hastera:

1.940. urtean "EUP"=
izeneko taldea sortu
zen; noski, mendiari
zuzenki loturiko tal-
de bat dugu, eta ber-
tako pertsonairik ga-
rrantzitsuena Loren-
zo Garate mendizale=
ospetsua zen.

1.942. urtean =
talde hau legaliza-
tzea pentsatu zen --
F.E.M.-en, honela El-
goibarren mendizale=
elkartea bat eroteko.
Baina, nazioko orga-
nismo federatiboek =
ez zuten onartu, "EU-
P" izen irregular-
tzat hartu zutelako.
Honela bada, Elgoiba-
rren mendizale elkar-
te bat sortzeko gogo-



PEÑA VIEVA - 2605 MTS. PICOS DE EUROPA

- MORKAIKOREN LEHENDAKARIAREN ZERRENDA:

- * Eduardo Aguirre..... 1943-47
- * Iñaki Konde..... 1947-50
- * Guillermo Garmendia..... 1950-53
- * Francisco Iriondo..... 1953-59
- * Julio Uria..... 1959-62
- * Ascensio Otegi..... 1962-68
- * Sabin Txurruka..... 1968-70
- * Isabel Arakistain..... 1970-72
- * Pedro Etxeberria..... 1972-74
- * Iñaki Santos..... 1974-76
- * José Antonio Vallejo..... 1976-78
- * Ignacio Izagirre..... 1978-80
- * Ion Ortuoste..... 1980-82
- * "Comision Gestora"..... 1982-84
- * (L.Arakistain, I.Estibariz, I.Konde)

ak handiak zirenez, =
beste izen berri bat
biletzea erabaki zen
Erabakitako izena --
"Morkaiko" izan zen;
honela, legalizatu-
rik geratu zelarik =

mendizale elkartea =
1943. urtean. Bere =
lehen lehendakaria =
Eduardo Aguirre izan
zen.

1.944. urtean=
Antonio Arrilloaren



aholkuari esker Arno mendian errefugio -- bat egitearen proiektua aurrerantz eramana izan zen; 1.944.eko Uztailaren 25ean inauguratua izan zelarik. Errefugio = honen proiektua Pedro Uguruza arkitekту elgoibartarrarengatik diseñatua izan zen.

Elkartearen lokal berria 1.963. urtean eraiki zen, orduko bere lehendakaria Ascensio Otegi = zelarik.

1.968. urtean, 25 urte zirelarik pasatuak Morkaikoren = sorkuntzatik, San Pedroko mahaiek inauguratu ziren.

1.959.eko apirilaren 5-ean Zergoste iturriaren inaugurazioa

Prudencio Etxaniz zenaren oroimenez egin zen.

1.948.eko martxoaren 16-an Hiru-Iturri iturriaren inaugurazioa Joxe Larreategi = zenaren oroimenez egin zen.

Gaur egun, 1984. urtetik beste komisio-gestora bat ari da = zuzentzen Morkaiko, = 86-raino iraungo delarik.

Morkaikok mendizale-tasuna zabaltzeko eta jentea mendirantz bultzatzeko lehiaketa edo txapelketa batzuk organizatzen ditu urtero:

Umeak ... 10 mendi
15 mendi

Nagusiak. 20 mendi
(4, 1000m baino gorakoak).

20000 metro

40000 metro
Lehiaketa honetan -- parte hartutako jendeak bere saria jasotzeko aukera edukiko du San Pedron bazkideen egunean.

Morkaikorentzat hain berezia den egun hau 1957. urtetik ari da urtero ospatzen San Pedroko zelaietan. = Bertako ambientea -- oso ona izaten da, = mendizale giro baten barnean gertatzen delarik dena.

Gaur egun, Morkaikok 2000 bazkide ditu gutti gora-behera, eta Gipuzkoako mendizale elkarte garrantzitsu enetarikoa du.



INSTITUTOKO EUSKALTZALE BORROKALARIAK

X.-k:-...Eta batukete eriten badugu, zati...

(Klaseko atea zabaldu eta X., gelan aridena irakaslea, isildu da. A. eta B., gelako bi delegatuak = dira.)

A.-k: - Bueno!... -- barkatu X.... Ya saheis que los delegados hemos tenido una... párate, gilipollas!...

(B.-ren erre errega rekin batera, nutrikutar baten kezka aditzen da:)

M.-ak:- Euskeaz!. Ez kea...

A.-k:- Bueno, nahi = badezue, ni euskeraz
X.-k:- Hemen denok = euskaldunak zarete, = ezta?

Batek:- Pero da igual!, tú! habla en --

castellano!.

M.-ak:- Zu!, mozoloi!

A.-k:- Bueno!, orduan joué?

M.-ak:- Zeuk esan.

Urlik:- Venga, tío! que queremos salir!.

A.-k:- Vale, vale... bueno, badakizue e--rreunixo bat izan degula delegatuak... =

que te pares, joder! bueno, ba hori, atzo edo eragin... da igual... E.T.A.-ko --

bat hil zutela eta..

Sendiak:- Tú!, que = era un guardia civil

A.-k:- Bueno, berdinda (ez?), ba hori, = huelga konbokatu dute y eso..., badakizue:

el rollo de siempre. Aber, esan edozer edo, ni ez dakit...

Atzeko batek: Huelga jode! (albokoari) a-

sí, nos vamos a cazar por la tarde... = Neska zirikelari batek irakasleri: -Ma isuok ze pentsatzen dozue?.

X.-k:- Baaaa... guk = zuek erabakitzea erabaki dugu.

Berendiak: -Listos! = así cobráis y no os rebajan el sueldo! =

X.-k:- Azkarrak garatu eta!

Leiho ondoan dagoenak: -Eske neretzat,

azken batez, o sea = nik uste hau, da, jone!

greba hori jaidela, ezta?, o sea..

Batzuk: -a ése!... = pa-ya-so!...

Betaurrekodun batek: -Hoixe, zentrik ezkat

toz protesta bezelalarunbatian klasea? =

-Ala!... el de siempre!...-Beraien zor-

tzi abizen euskaldun-
n k erretren ari di-
ren neska bik.

A.-k:- Bueno, zer?=
Atzeko batek: -ven-

ga, votamos y yasta

A.-k:- Pale... a --

ver, ¿los que sí?..

bueno, perdona: bai

ezkoak?... bat, bi,

hiru, lau... la hos

...!; bat, bi, ... he

mezortzi, hoge!

M.-ak:- Gaizki zen-

buresu!...

A.-k:-... passando
tio!. Ezezkoak?...=

mmm: bi!

¿Abstenciones?.....

bueno, beste danak,

ez? ...nueve.

Vale X.,bukatu degu

bueno tú, vamonos.

(Bi delegatuak kla-

setik atera dira).

A.-k:- ¿Que decimos?

B.-k:- Nada tio...=

que todos quieren =

huelga... jode, que

mañana tenemos con-

trol de euskera!

A.-k:- ¿Qué?

B.-k:- (Euskarazko-

irakaslea hurbil---

tzen ikusirik, agur

tzen duten bitarte-

an:)... esaten nizu

na... (urrundu dene

an:) que tenemos --

control de euskera.

A.-k:- ¿Euskera?...

nuff, vaya chorrada!

Barthaitz Handibe.

ETA GAZTETXEA, ZER ?

Denok dakigunez
gaztediaren urte in-
ternazionala pasa da.
Eta, honegatik, edo,
agian beste arrazoi=
batairengandik, Elgo
ibarren gaztetxe bat
sortzea erabaki du =
herri honetako gazte
multzo batek. Talde=
honetan egoera eta =
kolore guztietako --
gazteak daude erre--
presentatuak.

Guass-era, beti
berdin!, mozkorra ba
dot hobeto pasauko =
dot!, dira gazte as-
koren hitzak edozein
igandetan, esaten zi
guten gaztetxe proi-
ektua aurrera eraman
behar dutenek.

Gainera, jarrai
tu zuten, gaztedia =
oso sektorizatua da-
go, lanean duadenak,
ikasleak, langabetu-
ak, marginalak, etab.
Guk gure arazoak di-
tugu, eta hauek era-
bakitzeko hitz egin=



behar dugu. Hori lor-
tzea da gure nahia,=
horretarako gaztetxe
ko aktibitate guzti-
ak, hau da, errebul-
tsibo gisa, adibidez
gaztediaren politiza-
zioa eta sexu erre-
presioaren aurka jo-
tzea, gazte kultura=
bat sortzea.

Nola egingo zu-
ten, eta geto bihur-
tzeko arriskuaren --
beldur ez zirenaren=
aurrean zera eran---

tzun ziguten: itxu--
raz, gaztetxea taber
na antzeko lokale --
bat izango da, gara-
gardoa soilik saldu-
az, barra, eta mahai
batzurekin. Baina, =
garrantzitsuena, al-
boan batzarreak, es-
pozizioak, eta beste
lako ekintza kultura
lak egiteko gela bat
egongo da. Getoari =
dagokionez, gaztetxe
a geto izango da ai-
paturiko sektoreeta-



Prohibida su reproducción sin citar el nombre del autor Foto: IMANOL GARCIA

tik bat errepresenta-
tua agertzen ez den=
momentutik, bestalde
ez dugu nahi inork =
zuzen gaitzan, "Ju-
ventudes Cristianas"
edo antzekoak.

Eritziak gonba-
ratzekotan udaletxe-
ra joan ginen. Han,=
gazteekin tratuan --
gehien ibili den gi-
zonen batekin elkarriz-
ketatu ginen. Harre-
ra oso jatorra izan-
genuen, eta kezka =
azalduak izan zitza-
izkigun.

Azken urteotan=
eskari asko izan di-
tugu, baina ez dira
izan, instituzional-
du gabeak izan di-
ra. Eta garrantzi-
tzuena, beste herri-
etako esperientzia=
txarrak ikusirik, =
beldur naiz gazte-
txe hau drogazaleen
batzar leku ez den=
bihurtuko. Hala ere
kultur elkarteak, i

nolako presioaren =
menpe, baietz esan-
zuen. Noski, baldin
tzak jarri zituen: =
taberna merke baten
orduketa izango du,
alkohola bakarrik =
garagardoa izango =
da zilegi, eta tes-
rero eta lehendaka-
ri bat egon beharko
da.

Bukatu, moral =
gogor baten diskur-
tsoarekin bukatu zu-
en.

Aiton-amonen egoera
rekin gonbaratuz ga-
ur egun ongi bizi =
gara, aurreratu gai-
tezke, beraz, droga
zaleak justifikaezi-
nak dira. Jarraitu-
az, kultura gizona-
go izateko da. Kon-
klusioa, gaztedia e-
zin daiteke baka-
rrik joan, gidatua =
izan behar da.

Dena dela arazo
a airean dago, udale-
txeak ez baitu pleno

an azaldu. Soilik --
non izan daitekeen =
da zihurrena, Arteka
len edo Santa Ana ka-
leko lokalen batean.

Baina, eskerrak!
urte "gogaitagarri"=
hau joan delako edo,
arazoa konponduko da
gainera egoera latz-
guztien gaineratik kul-
tur elkartearen bi-
hotz ona hor dago. =
Bestalde, beldur na-
iz betikoa ez den ga-
raile irtengo, gazte-
engan ez dago konfi-
antzarik, eraikirik=
dagoen bizimodua ---
apur baitezake, be-
raz, kontseilatu e-
gin behar dira soi-
lik kontseilatu? Hau
tesi liburu batentza-
ko aztergai ederra =
izango litzateke, bi-
tarteetan, hor geldi-
tzen dira Elgoibarko
heroinomano eta alko-
holikoak, erantzun =
zai.

LAGUN TALDEKOEKIN ELKARRIZKETA

MILAKA KILOMETRO BIZIKLETA GAINEAN

Txirrindularitzak azken urteotan sekulako gorapena izan du Espainia mailan ez ezik Euskadi mailan ere. Azken honetan izan duen hultzadaren arrazoietakoa bat txirrindulari euskaldunen, hala nola Gaston, Pello R.C. Jokin Mujika etabar-en Boom bat izan daiteke. Patxi Lodosok ongi esplikatuko dizkigu arrazoiak hain zuzen ere, berarekin hitzegiteko aukera izen bait du. Aurrera ba aipatutako elkarrizketa.

1. Nola sortuzen E.L.T. (Elgoibarko Lagun Taldea)? Nortzuk izan ziren sortzaileak? Eta zer da, berez, E.L.T.?

Txirrindularizale batzuen iniziatibarengatik sortuzen E.L.T. Hauen asmoa nortasun propioa izango lukeen erakunde bat sortzea zen, kolore batzuekin, egutegi konkretu batzuekin etabar.

E.L.T. hirugarren galderari erantzunez, txirrindulari elkarte bat da, txirrindularitza bere dimentsio guztietan, kirol mailan ez ezik jolas mailan ere, defendatzen duen



txirrindulari elkarte bat.

2. Nola izan ziren E.L.T.-ren lehen pausoak?

E.L.T.-ren lehen pausoak lagun talde mailan ematen ziren. Arrez gero bere aktibotasuna zabalduz joan zen probintziarteko zikloturist aktibitatearen

iritsi arte zenbait txirrindulari bilera antolatuz. Azkenik bere eremua zabaltzea lortu da, txirrindulari eskola bat sortuz kadete, gazte, eta afizionatu mailan.

3. Ekonomi aldeari buruz zer diotuzun? Zenbatekoa izanda, adibidez, 1985-e



ko aurrekontua?

Elkartearen finantzapena bazkideek errifak salduz eta erosiaz eskariak eginuz etabar egiten duten ahaleginetan oinarriturik da. = E.L.T.-k duen aurrekontua ia guztia txirrindulari zaleen -- patriketatik irtena da.

1985-eko aurrekontua 2.750.000 ptzkoa izan da.

4. Zenbat bazkide dauka E.L.T.-k? E.L.T.-k 250 bazkide edo lagun oso ditu, = hoietatik 75 aktibokak direlarik.

5. Udaletxe edo eta organu ofizialen batetik jasotzen al duzue inolako laguntzarik?

Jasotzen dugu, bai, Udaletxearen aldetik laguntza minimo bat, lasterketak antolatzeko batipat. Honek, hala ere, aurrekontu osoaren zati txiki bat bete--tzen du.

6. Interesgarria izango litzateke, txirrindulari ikuspegi batetik begiraturaz belodromo edo antzekoren bat eraikitzea txirrindulari tza indartzeko eta batipat jende gaztea bultzatzeko aipaturiko kirol hori praktikatzera.

Zer diozu honi buruz? Eskatu izan dizkiogu udaletxeari belodromo edo tankerako zer bait eraikitzeko lurrrak: Forgas, Alyco eta San Roke auzoentartean dauden lurretan konkretuki, baina hain aurrekontu txikia eskeintzen zaio kirolari ez bait dugu ezer positiborik atera.

7. Herriaren zuzenbako erantzuna nola ikusten duzu? = Herriak, oro har, erantzun pasibo bat dauka, hots, ez du aktiboki partizipatzen gure ekintzetan. Egiten duguna jendeak badaki baloratzen

baina ezer gehiago. = Ez da ezer egiten Elgoibarko txirrindularitza hobetzeagatik. Eskerrak txirrindulari eskola eratu dela. Ikasleen gurasoak -- mantentzen duten eskola honek ematen dion benetako indarra = E.L.T.-ari gaur egun zikloturismoa erabat prestatua bait da.

8. Goaz, orain zuen aktibitateei esku botatzera. Nola = planifikatzen dituzue urteko aktibitateak edo zeintzu dirantolatzen dituzuen ekintzak?

Honako hauek dira:

- Zikloturismo mailan: "Liga Vasca" delakoa, Gipuzkoako zikloturist kriterium-a eta irteera sozialak.

- Herri mailan: Eskola arteko jokua

- Txirrindulari eskolan: Lehiaketarako bi lasterketa eta Gipuzkoar txirrindulari egutegia.

- Kadete eta =

gazte taldeekin Gi--
puzkoar txirrindula-
ri egutegia.

Ziklokros-eko lehe--
nenfo txapelketa (ga
bonetan).

9. Egiten al =
duzue irteerarik tal
deka aste buruetan?

- Zikloturista
irteerak aurrez era-
turiko egutegi bat =
dela medio egiten da.
Egutegi honen iraune
na 8 hilabetekoa da=
Martxotik Urrira. Ofi-
zialki igande goize-
tan soilik atera iza-
ten para.

10. E.L.T.-a--
ren barnean kategori
ezberdinak al dituzu
e?

Bai, baditugu. Hona-
ko hauek dituzu:

- Eskola modura edo=
eta txirrindularitza
ren hasera.
- Kadeteak
- Gazteak
- Afizionatuek -lehi-
aketa barnean.

- Eta azkenik ziklo-
turista maila.

11. Zer asmo =
dituzue etorkizunari
begiratuaz?

E.L.T.-aren asmoak =
aski garbiak dira: =
Txirrindularitzaren=
bultzapena bere al-
derdi guztietan: zik-
loturista fitxen ge-
hikuntza, adin gazte
enetatik semi-profe-
sionaltasunarenganai
no taldeak izan, he-
rrian txirrindulari-
sentimendu hau sus-
pertzeko lasterketak
antolatuta etabar.

12. Zein izan=
daiteke zuen ustetan
txirrindularitzak az-
ken urteotan Euskal=
Herrian izan duen go-
rapenaren arrazoa?=
Prentsa, irrati eta=
telebistaren "erruz"
izan du dudarik gabe
txirrindularitzak i-
zan duen gorapena E.
Herrian suspertuta =
handiagoa izango lu-

ke gure bideak kirol
hau praktikatzeko a-
proposagoak balira.=

13. Amaiera --
galdera praktiko ba-
tekin egingo dizuegu
Herrian E.L.T.-en i-
zena ematea nahi du-
en norbait baldin ba
dago nora jo behar =
du?

Oso erraz daukazue: =
"Ciclos Lodoso" P. =
Muguruza kalea 19. =
Hau esango dizue ---
izen emateari buruz=
guztia, bai, lehiake
ta mailan, ziklotu--
rismo mailan, seguro
ei etabar.

Honela ba, badakizue
zerbait gehiago E.L.
T.-ari buruz. Irakur
le guztiok izen zare-
te Patxi-ren hitzen=
lekuko ikusi ahal i-
zan duzuen ez inolako
ardurarik gabe hitze-
gin digu E.L.T.-ren=
arloan nagusiari buruz.
Eskerrik asko Patxi!

HAU BAI!
BENO, ORAIN ERDE-RAZ LABURTUKO DUT. COPIO HE DICHO EN EUSKARA...
LIQUIDACION MERKADIA
OMARRA AVISO
ENTZUN, ENTZUN! LAU URTEKO UME BAT GALDU DA. SE HA PERDIDO...

HONELA EZ!
HAY PERAS A 50pts.
MENU DEL DIA:
HELADAS DEL PAIS
MERLUZA A LA VISCIA
PAN, VINO Y FRUTA
GABON! VAMOS A DAR COMIENZO A ESTE FESTIVAL CON...
AHAL DENEAN EUSKARA HUTSEAN, GUTXIENEZ BIETARA
EGOIBARKO IZARRA
Euskara batzordea

ITZIAR AJURIA

BIZITZA BAT IRAKASKUNTZAN

Ostiral arratsalde = hartan Itziarren e--txeko atea zabaldu = zenean zerbait berezia sentitu genuen, = aurrean genuen emakume hura ikustean. Itziar gure lehengoetako irakaslea izanzen Elgoibarko ikastolan, guk lau edo --bost urte gunituela. Nork ez du ezagutzen Itziar Elgoibarren? = Bera eta Elgoibarko ikastolaren lehen urratsak lotuak daudelaren ustean, elkar--rizketa bat egin dugu, bai bera eta bai ikastolaren sorreraz hobeto ezagutu ahalizateko.

--. Nola bururatu zitzazizuen garai hartan euskaraz irakastea?

I. Lehen iluntzetan euskara ematen zuten talde bat zegoen - Felix eta... - Hortik = sortu zen euskal eskola bat egiteko lehen ideia 1962an abisatu zidaten niri, = Irailean.

--. Ideia hau bat-batekoa izan al zen, = ala beste herrietan oinarritu zineten?

I. Ez, ez. Orduan Donostian lau edo bost ikastola baziren, baina gaitzatzeko herrietan ez. Geu izan ginen lehenengoak Donostia alde batera =



utzirik.

--. Eta inolako...

I. "Papeleuak" zirela eta, 1963ko Maiatzaren 2an hasi ginen, 30 bat ikaslerekin; zaharrenak, 6 = urtekoak, Hasier Etxeberria, Ernesto = Zubiaurre orain Zaragozan-, eta Andoni = Larrañaga izan ziren. Gazteenak, hiru urtekoak. -Ezer galdetugabe jarraitzen diokontaktari- Berandu hasi ginenez, Ekainean eta Uztailean ere klaseak ematen jarraitzea nentsatu genuen.

I. Nolako harrera izan zuen lehenengo = urte honetan sortu = berria zen eskola honen?

Ona, oso ona. Asko = zain zeuden. Eta bigarren urtean ikasle

en konuruak gorakada izan zuen; berrogeta ka izango ziren urtarrian.

--. Eta irakasleak... Bai, hasieran neu bakarrik aritu nintzen 30 ikasle haiekin. = Eta bigarren urtean = Jone Etxabe hasi zen. Honek ere, nik bezalaxe, "kursillo" bat egin behar izan zuen hilabetez Donostian, ez zuen eta Magisteritzako titulorik. = Handik bi edo hiru = urtetara, ez naiz ondo gogoratzen, etorri zen lehen irakasle tituloduna, zera, andereño Iturbe Abasolo lehendabizi Altzolan hasi zen monja eskola batetan.

--. Laguntzarik izanahal zenuen hasiera hartan?

I. Laguntzarik? Ez, =


Egoera hartan ez zen laguntzarik izan. Orduan sozioen kuotak= atara ziren honoak = izan ziren finanzia- zio bide bakarra. --
 -. Zeren sozioak?...
 I. Elgoibarko Izarra zen orduan, eta han- go sozioak; horren = izenean zabaldu zen. Hala ere oztono asko izan genuen, ez bait genuen baimen ofizia- lik; bai nolabaiteko baimena, baina "klan destinoa" zela esan- daiteke gure ekintza hura. Horregatik in- pektoreak etortzen = zirenean...

-. Ah, Bai! Denok ai- dean...

...Trinck jaten! tri- nak jaten ibiltzen = ginen inspeksioa e- tortzen zen bakoitze- an! Geroago, laster= samar, parrokiak har- tu zuen ikastola be- re babesean, behin- tzat haren izenean = inini genuen: "Escue- la Parroquial San -- Bartolome"...

-. Beraz, parrokoa-- ren papera nahiko ga- rrantzitsua izan zen ez?

I. Bai, bai, bai. Ga- inera zuzendari beza- la agertzen zen pa- rrokoa; behin baino = gehiagotan esan zida- ten niri inspektore- ek ez nuela han ja- rraitzerik, titulo-- rik ez nuela eta: a- re gehiago ikasleak= sei urtetik goragoko- ak baziren. Bai, bai mehatxuek hartzen ni- tuen: "Usted no nue- de estar aqui"; eta= horrelakoak askotan=



egoera hauei aurre = egiteko eta beste as- kori ere, zuzendari= baten beharra ikusi= genuen. Don Juan Be- rristain mutrikuarra= parrokoa izandakoa = bere liburu haundie- kin eta Don Alfonso= ere etortzen ziren, = gu erabat beldurtuta egoten ginenean. Nog- ki, beti beldurrez, = beti beldurrez, klan- destino modukoak zi- ren eta gure ekin-- tzak.

-. Beste erakundeen= laguntzarik... udale- treak...?

I. Bai, zerbait bai; hasieran hamar mila= dukoren bat edo e- maten ziguten, eta = ongile batzuk ere ba- ziren zerbait ematen zutenak. Bilbotik e- re norbaitek eman zi- gun zertxobait,... = Felix izan zen hone- tan lan haundia egin zuena.

-. Gerora legalizazi- oa etorri zen, eta.. bai, zenbat urte i-- zango dira ba legez- tatu zela?

I. Bai. Izan ere le- henengo, lau urte e- giten ziren ikasto-- lan hau da, bedera-- tzi urte arte.

-. Bai, Iñaki Goñi = eta hauek El Pilar = ikastetxera joan zi- ren ondorengo urteak egitera; gogoratzen= dugu, bai.

I. Bai, hala da, bai na aurretik azterke- ta egin behar izaten zuten "Publiketan". = Bai, behartu egiten= zituzten azterketa = hura gairaditzera. --

-. Esan diguzu -- euskaraz hasi zinate- la irakasten. Honek= ez al zuen, nolabait jendearengan kezka-- rik sortu? Hau da, = gurasoek ez zuten -- pentsatu euskarazko= heziketa bestelakoa=



baino balio gutxiago
koa izan zitekeenik?
I. Batzuk bai, baina
noliki-noliki inda-
rra hartzen joan zen
-. Bai, baina halere
lehen euskarak ez zu
ela baliorik edo eus-
karak ez zuela balio
ikasketak egiteko, =
baserritarren hizkun-
tza zela esaten zen,
eta...

I. Lehenengo pentsa-
kera bat zen hori, =
baina ez; gausa ondo
joan zen, aurrikus-
teak (prebisiok) =
egiten ziren, Irion-
dok egiten zituen =
estadistikak, eta =
gehitu egiten ziren
aurrikuste horiek =
gaur arte.

-. Horixe, bai. Ze-
rikusi haundia izan
go zuen zu hor ego-
teak, hau da, berta-
koa zara, eta ezagu-
na...

I. Bai, bai, nahiz=
eta ezjakina izan =
praktika bat har-
tzen da, eta poza e-
maten du, eta seina-
le ona dirudi dela.

Izen txarrik ez du-
gu behintzat izan, =
ezjakinak izan a-
rren. Zorionez, bes-
te guztiek titulua-
atera zuten. Niri =
ere esan zidaten, =
baina urte hauekin=
ez naiz ausartu. Ge-
ro Eusko Jaurlari-
tzak esan zuen le-
hendik ari garenok=
eskubidea daukagula
jubilatuta arte jarra-
itzeko, eta hemen =
gabiltza oraindik =
ere.

-. Benarra zegoelako
ere bai, ezta?

I. Bai, horixe bai-
etz. Eta euskal zale-
tasun bat ere bazego-
en...

-. Lantegiak ere...

I. Bai lantegiak ere
laguntza ematen zigu-
ten; Danobatek asko-
bultzatu zuen, esate
baterako gure ekin-
tza hau. Dena dela, =
beste lantegi askota-
ko donatiboak ere i-
zaten ziren.

-. Lehenengo ikasto-
la ikusi edo oraingo
a ikusi alde ederra=

da, ez?

I. Bai, lehendabizi-
gela txikietan hasi-
ginen, eta gero Pa-
rrokiak eskaini ziz-
kigun beste lokal ba-
tzuk. Izan ere, le-
hen oinatu dugun D.=
Juan Beristain hori-
euskalzale amorratua
zen. Hark bultzatu =
zuen asko ikastola =
eta haren bidez lortu
genituen parroki-
ko lokalak ikasleak-
gehitzen joan zirene-
an, bai. Gero, lortu
tako diru amurrare-
kin lokal berriak e-
rosten hasi ginen; =
Konkortan, "Loriton-
an" Goitin eta aber.
Goiti aurtan arte e-
rabili dugu; aurtan-
utzi egin dugu. Gero
"Ikastola Berria" e-
gin zenean, O.H.O. =
guztia hara eramane-
genuen, eta... ez da
kit, beste itxura --
bat hartu zuen.

-. Lehen hiru edo lau
irakasle zineten =
eta orain?

I. Bai, orain berrogei
eta hamar gara.=
Guri galderak bukatu
bezain laister, Itzi-
arrek, Elgoibarko I-
zarrak eta Felix E-
txeberriak egindako-
lana azpimarratu zi-
gun berriz ere. Ez-
zeukan gorapena --
besterik Felisen---
tzat, eta hala ja-
kin erazi zigun.

-. Lehenengo ikasleen
eta oraingoen arte-
an alde nabarmenik-
ba al dago? galdetu
genion.

I. Beti ere, beti =
ere... (farre alga-
rak). "Erderia, er-
deria". Zuen garai-
an ez zen telebista

rik, eta telebista= jarri zenetik erderaren zabaltea argi esko nabaritu genuen. Telebista etxeetan sartzen hasi zenean erderare zabalitzen hasi zen. Kalean bizi ziren baserritarren umek ere erderaz hasi ziren jo ta ke Telebistaren eragina garbi ikusi genuen. Orain, tira, Euskal Telebista ere bada eta, ... Baina= hasiera bateko ikasleek gehiago egiten zuten euskaraz oraingoek baino. Ikastolan zebiltzan taldeak ere euskaraz =

egiten zuten eskolatik kanpo zeudenean ere; kalean eta beste leku guztietan. = Orain erderarako joera handiagoa dago.

-. Hori izan al daiteke orain Ikastolan guraso erdaldunen seme-alaba gehiago dagoelako?

I. Bai, bai, horixe= baietz. Lehen banaka batzuk ziren, eta -- besteen artean nolabait moldatu edo integratu egiten genituen; bat edo bi izaten ziren. Orain berri, talde osoak daude erdaldunak, eta horrek eragin handia dauka. Horretxegatik

ari gara orain ahalden neurrian horiek ere beste taldeetan sartzen; nahasten, = nolabait esateko, baina kannoko edo kaleko erdal giroak ez = dio batere honik egiten gure ahalegin honi.

Honela elkarrizketak bukatutzat eman genuen, baina erin genuen makina bat kontu gero ere, lehenengo garai haiek gogoratu. Argi dago, Itziarren bizitza eta ikastolarena estu-estu lotuak daudela, bera izan bait zen lehenengo irakaslea eta oraindik ere hor ari da.



TXITXILIBAKIO
ALDIZKARIA

SAN FRANTZISKO KALEKO 24.ºm
GAUDE

ITZULPENA

Gaizorik zegoen eta dirurik gabe, baina kipula usaia hartzen zuela ko bere burua hil zuen.

- Demaseko kipula -- usaia dago, kristoren kipula usaia.
- Isildu zaitez, gizon, nik ez dut ezer usaintzen. Leihoa -- irekitzea nahi al du zu?
- Ez, berdin da. Usai ez litzateke joango, paretak dira kipula usaia dutenak, eskuek kipula usaia botatzen didate. Emakumea pazientziaren irudi berbera -- zen.
- Eskuak garbitzea = nahi al duzu?
- Ez, ez dut nahi, = nire bihotzak ere kipula usaia botatzen = du.
- Lasaitu zaitez.
- Ezin dut, kipula usaia dago.
- Ea, lo egiten saiatu zaitez.
- Ezin dut, denari = kipula usaia hartzen diot.
- Basokada bat esne = nahi al duzu?
- Ez dut esnerik nahi. Hiltzea nahi nu-

ke, hiltzea besterik ez, oso azkar hiltzea, gero eta kipula = usai handiagoa dago.
- Ez ezazu tontakeri arik esan.
- Nahi dudana esaten dut! kipula usaia dago! Gizona negarrez = hasi zen.
- Kipula usaia dago!
- Beno, gizon, ados, kipula usaia dago.
- Noski kipula usaia dagoela! Demaseko kiratsa!
Emakumeak leihoa ireki zuen. Gizonak, begiak malkoz beterik = zituela, garrasika = hasi zen.
- Itxi leihoa! Ez dut kipula usaia joaterik nahi!
- Nahi duzun bezala. Emakumeak leihoa itxi zuen.
- Ura taza batetan = nahi dut, ez basoan. Emakumea sukaldera = joan zen, ur taza -- bat bere gizonari -- prestatzeko asmotan. Emakumea ur taza garbitzen ari zen; garra-

si latz bat entzun = zenean, gizon bati = pulmoi biak berehala lehertu izan balitza izkio bezala.


Emakumeak ez zuen entzun gorputzak patio ko lurraren aurka -- hartu zuen golpea. = Horren ordeztan mina nabaritu zuen, min hotz eta zorrotz bat, orratz luze batez egindako -- zaxtada baten antzerakoa.

- Ay!
Emakumearen garrasia irekitako leihotik = irten zen; inork ere ez zion erantzun, -- ohea utsik zegoen. Bizilagun batzuk patio ko leihoetara agertu ziren.

- Zer gertatzen da? = Emakumeak ezin zuen hitzegi. Ahal izan = balu,

- Ezer ez, kipula usai pixka bat zegoela.

Erantzungo luke.
(Camilo Jose Cela.
"La Colmena")



testua

POLIEDROAREN HOSTOAK

-Haizearen hazia ninan nigan eta iza--- rrez iltzatutako gau hartan denboran zehar zabaldutako desi oak lehertu hituen nire gorputzeko zurrunbiloan. Sigi-sagako haize aizkorakadaz anurtu nitinan. - espazioan sortu zitzazkidan lehenengo mugak. Baina behin batez atmosferan mugaz bestaldeko espazioa ezin nuela iragan konturatu nindunan. Eta nik gora -- eta gora egin nahi ninan izarrak besarkatu arte.

Urte eta urtetan aritu nindunan etsi gabe, baina alferrik, - beti muga horren oztopoa salbagaitz aurkitzen nuelako, ondoren, bakartatezko espiralak deskribatuz, lurraren kontra malkortzen nintzelarik. Behin eta berriz --- ekin nionan eta beste hainbestetan izan nindunan garaitua. - Baina beste batez, - nire bide errakorrean, hire azala topatu ninan, Benita.

Ateak zabaldu hizkidan eta ni sartu --- egin nindunan. Eta gora eta gora joan gintunan aintzinako-

muga airezko oin azpietan ikusten nuelarik. Orduantxe hi gabe ezin nintzela bizitu ulertu ninan.

-Urte eta urtetan egon ninduan hire zai Teodoro. Urte eta urteren eraginaz bizkarrara bularrekin jositzeidaan, kopeta garondoarekin, aurrea atzekaldearekin, - tolestatuko azal zimel zaharkitu baten itxura hartu nuen arte. Haizaturik gabeko globo zimurtuaren antza hartu zian nire gorputzak: bai, - horixe zirudian. Behin baino gehiagotan nire ondotik pasa eta ez hintzen konturatu, zuhaitz baten hosto kizkurtua bezala tratatu ninduan. - Baina beste behin, - urtetan zabalik nuen atetik zehar sartu hintzen nigan, nire azalaren zuntz eta hariiek gorputza teinkatu ziaten, hire aireaz haizatu ninduan eta gero, gora eta gora, izarretarantz abiatu gintuan denborak fosildutako ametz zaharrak birbitu nahian.


-Fisikaren sekretuak erakutsi hizkidan: - gaua egun bihurtzen, kilometroak metro e-

ta orduak segundu.

-Nire altzoan hik jarritako hazia bizitzaren keinuetara ohitu huen. Eta bizitzak mugimendu berria eman zioan nire azal fosilduari.

-Hire azala laztandu ninan eta gero neurea. Biei azal berrituen mugimendu berdina zerienan: azal zaharra astindu zuen haziari aireak azalaren magalean estreinatuko izar dantza gainjarri zitzeionan. Eta airezko azal berrriaren kausa eta mugimendua defendatzea bilakatu huen gure bizitzeko arrazoi bakarra.

(Joan Mari Irigoien-
"Poliedroaren hostoak")



BERRIZ BASERRIRA ?

INORK USTE BAINO ZAILAGO

1960 inguru horretan nekazariak bere baserrietik zetorkion ogibidea utzi eta, kalera abiatzen da.

Bizimodu berri bat = somatu zuen: Industriariarena.

Uholdeak daraman intxaur oskolaren gisako zen kalerako bere martxa; nahiz eta baserrian jarraitu bizitziz izaten, gazte eta ez hain gazte zirentzat, izugarria = izan zen industria-
ren lilura.

Baina bada arrankada hori alde batetara = utziz, baserriari gogor eusten dionik, = eta horretarako hona Elgoibarko baserri-
tar bat.

JESUS MAUSITXA

- Ze urtetan jaio zinen?

1956.an Mausitxa baserrian

- Egunak zenbat ordu dituzue?

Segun, hamabi ordu = barrena, eta izaten = dira dexente gehiago egindakoak ere; beste batzuetan berriz = aitxakirenbatekin anka egin eta gutxiago egindakoak ere bai.

- Subentziorik eta = jaso duzue gastatu duzunarekin?.



Aurtengorarte egin = ditugunenak jaso ditugu, eta nahiko ondo gelditu izan gara

- Zenbat ardi daukazue?.

Berrehun eta berrogeita hamar.

- Ganadutan zenbat = buru daukazue?.

Larogei.

- Esnerik ateratzen = ahal duzue?

Ez, haragitarakoa da daukagun ganadua.

- Europako sarreran = nola gelditzen da haragitarako ganadua? = European sartzen denean, Europako jendeak ez du jaten hemen -- guk hasten dugun -- txaal hau; hor edadeko ganadua jaten da; hemen jendeak jan -- nahi ez duen ganadu =

zaharra alegia, hori da estimatzen dena. =

Hala ere Europa alde horretan edo ba omen dago granja bat txahal gazteak saltzen dituen, baina = gehienetan ganadu za harra jaten da.

- Nola ikusten duzue hemengo haragitarako ganaduaren kalitatea?

- Baita haragitarako ganaduaren kalitateari ez zaio begiratu = hemen, hemengo baserriarrak etxean badauka isko pintxo, = suizo hezurtsurenbat edo zerbait, ez da = joan beste leku batera behiari iskoa botatzera, eta hori delarik kalitatea jekitsi egin da.

Euskal herrian semental mailan ere kali-



tatean urria da; etxean sementale dauzkatenek eta, inseminazio mailan ere badauzka ze meioraturik.

- Zuk nola ikusten duzu hemengo esnearen egoera surrera begira?

Nik usten dut ganadu arraza hobetu beharra dagoela; Espainian egongo dira Holandian baino esne ematen duten behiak, baina grasa esko gutxiagorekin; alegia ganadu arraza hobetu beharra dago.

Gurelesak prezio baxuak ditu, eta kontuan izan behar dugu Elkartean sartzen garenean, oraindik prezioak jeitsi egingo direla eta gehienbat esnearen kalitateari begiratuko zaio.

Euroko Komunitatean sartzerako pinua nola ikusten duzu? Pinuak oraindik ez du indarririk, ez dakit zergatik izango

den, atmosfera kutsatu delako edo, ikusten da pinua oso gaixo dagoena, hau da ez duela indarririk.

Eta bestalde papeletrak mendiak eskabatu egiten dituzte pinuhori lehenbaitlehenetor dadin, eta ikusten da eskabatzen den leku hoietan askokorekin pinua indartsuago datorrela, baina neuri ez zait oso ondo iruditzen era horretan mendiak ihusurtzea ze, lekuhori zeharo erasanduta gelditzen da.

Baserritik bakarrik bizi direnei laguntzak gehitu behar litzateke bai Diputazio eta bai Euskal Gobernu aldetik surrera hau gertatzen denerako?

Bai erreztasun gehiago behar litzateke behintzat, baina nik usten dut hor ondo bereiztu beharra da-

goela baserritik bakarrik bizi dena eta kale eta baserritik bizi dena; orainarte kalean lanean egiten duen baserritarrek, baserritik bizi denaren laguntza berdina izan ditu, batean aitaren izenean egiten dela eskabidea, eta bestean andrearen; eta hor nire ustez bereiztu egin behar litzateke, ze lantegian lanean egiten duenak, aseguruak eta denak dauzka, baina guk esko ez bada ere ordaindu egin behar izaten dugu.

- Zuk nola ikusten duzu baserriaren etorkizuna Europako surrera honetan? Ba nere ustez preparamen denak lehen dagoen eran jarraituko duela uste dut, baina baserri txiki entzat egoera ez da hain ona.

Europano martxari aurre emateko gertatu beharra dago, lehendabizi prezioak behar egingo dute, gure gora egin nahian gaude baina, behar egingo dute; europano lurrak hemengo aldean hobek dira; ze makineriaz ere hobeto gertatuta baitaude; hoiekin konpetitzeko gertatu beharra dago.



BERTSOAK

TXEPETXA

P.M. Otañok

Ez da erraza inongo literaturatan horrelako deskribapenik aurkitzen.

-1-

Askotan esan izandu dute
gizon ikastun argiak,
nola piztiak izan litezken
gure erakuslariak:
erlia da bat aipatzen dana,
o zer lan harrigarriak
jartzen dituzten gure aumian
honek eta txinguriak!
Txepetxak berriz erakusten du
hainbeste nola hain biak.

-2-

Txotx batek aisa jasoko luke
nola karga gutxi duan,
bainan gustatzen zaio jartzia
adar sendoxiaguan;
amilduarren ez leike galdu
dakielako heguan;
bainan arkitzen baldin bada ere
burnizko aldamiuan,
hiru lau aldiz xanpatutzen du
seguro ote dagan.

-3-

Euskal lurreko txorietan den
txikitxuena da bera,
gaztain kolore bakarrekua
nahi bada ez da ederra;
begi argiak, buru xanpala,
moko tentia aurrena,
gorputza motza, hanka laburrak,
xaltokako ibillera,
xalpartako hegalaria
eta kantari ergela.

-4-

Udaberrian lehendabiziko
kabia txepetxarena
azaldutzen da, ta ezaguna
goroldiozkua dena;
arbol gerrian, huntza tartian
du lekurik maitiena,
ta gizon askok ikusitzian
iritxpidian dagoena,
esan ohi dute: «Zer konfiantza
txori txar honek duena».

-5-

Ta edozeinek esan lezake
berari begiratzean,
arretarikan ez daukala
egin leioken gaitzian;
ez idurikan, hark kabari
beste zulua atzian
egiten dio handik juateko
aurrekua tapatzian,
erakutsiaz pentsatzen dula
nola atera sartzian.



BERTSOAK

NESKAZAHAR BAT TENTATZEN...

Txirritak



-1-

Dozena bat bertso
nahi nituzke jari,
jaietan kantatzeko
entretenigarri;
nere publikatzia
izango da sarri,
alabantzak emanaz
zenbait neskazaharri.

-2-

Neskazahar bat tentatzen
hasi naiz lehenguan,
izan ere halako
polita zeguan;
umil eta serio
hitzegin genduan,
baiñan gusto guziak
ez dira munduan.

-3-

Hizketan hasi ginen
biak gozo gozo,
ezkontzeko mandatu
egin diot atzo;
leihotikan ujuka
ama ta bi atso:
«Ez dek harrapatuko
uste bezin mantso».

-4-

Ama preparatu zait
hasarrez betia,
lehenbiziko ujua:
– «Zenbat dek dotia?
Hainbeste kostatako
alaba maitia,
lastima izango dek
hiri ematia!»

-5-

«Zere familiari
errespetoz heldu,
inozente daudenak
ez ditezen galdu;
diru truka alaba
nahi zenduke saldu,
lehenago erostunik
ez al zaio azaldu?»

-6-

Nere jakinduria
ari da atzentzen,
erez dala uste du
zenbaitek ezkontzen;
promesa on bat eginda
ez bazera ontzen,
lanak izango dira
zurekin konpontzen.

-7-

«Ez dezu sinistu nahi
egia esanda're:
zintzua nahi genduke
pobria izanda're;
gure baztarak baiño
hobiak non dare,
alabari sasoa
piska bat juanda're?»

-8-

«Bere alabarentzat
horrenbeste fama!
Nik ez det sinistatzen,
haizeak darama;
zure baztarrean nik
egitea lana...
Izan liteke, baina
ez det uste, ama!»

-9-

«Ez al dala uste dek
horren errespuestik?
Atarramentu onik
mutilzaharrak ezтик!
Nere alabak ez dauka
ezkontzeko kezكik,
hi ez bezelakuak
nahi ez ta zekazكik.»

-10-

«Hitz bat esan behar det
nere borondatez,
ez banau inork lotzen
grilluz edo katez:
ezkontzeko ideak
banituen ustez,
ardua maitatzen det
andriaren partez.»

DENBORAPASA



ZALDI JAUZKA

NI	DU	NAIZ	NUN	SA
NA	BAIT	TAZ	TAN	IN
AN	TZEN	ZO	RRI	KI
GI	I	MIN	GU	BES
TZA	RU	TE	ZA	TAN

Lehen laukitxotik asi ta UNAMUNO-ren esakuna asmatu.

HITZ GURUTZATUAK



Zeharretara

1) Itsasoko abere. Bestaldera begiratu. 2) Itsasarrain urdina. (Mugil auratus). Ohezapiak, maindireak. 3) Galde aurretik. Betortzak, betaginak. Gu-txi palta. 4) Eginbeharrak. Bere oldez, berekauz. 5) (atz) Itsasontzien babes. Benetan, egi-egiz. (atz) Bekaitz, zurkaitz. 6) Txorien biztoki. (atz) Itsasandere, maiteder. 7) Arbaso, aurretiko. Burusoilak ez dute. 8) (atz) Senide, aurrider. Arkondara, alkandora. 9) Burdin lertzo. Dagokion lain. Lehia, zaletasun. 10) Akien, bakasta. Gaztai, gaztae. 11) Gerundi atzizkia. Ajolakabekeria, erabea. 12) (atz) Igarapide, ubi. Iluntasuna kendu. 13) Okela ger-tu ta saltzen duena. Pozkidatua, alegeratua.

Goitik behera

1) Lekadun barazkia. Itsasontzien babes. Arrantzarako tokia. 2) Aragi gogor, zail. (atz) Gaindegi, etxegoi. Urtetsu. 3) (atz) Aurrizkia. Irristakor-rak, lerrakorak. Bada. 4) Txularmedun itsaskia (Euplectela aspergillum). Iba-rrak, mendarteak. 5) Zart egin. Galdara, pertz. 6) (atz) Itsusi, ezain. Adis-kide, kutun. 7) (atz) Aldapa neketsu. Ihardun. 8) (atz) Zuck eta ni. Suaren lekuko. 9) (atz) Eudi, euri. (atz) Gezurra ez dena. 10) Benetan, egi-egiz. (atz) Laranja, urresagar. 11) Ortzean ditzari. Euditarako janzki. 12) Bettiko, sa-beleri. (atz) Maskaldu, erabildu. 13) Abrahamen jaioterri. Zimitza, zumi-tzaria. (atz) Anitz diren toki atzizkia. 14) Buzoka, aitzore. Zimail, zauli. Tresneri, mataratzu. 15) Jakintsutu. Lerrondo, pinu. Beldurra, ikara.

15 EZBERDINTASUN



jo... adarra

ESKELETOAK BIDAIAN

Hilerriko eskeletoek ere Ihauteriak ospatu nahi izan zituzten, eta orduan motorra lapurtu, hilerrira eraman eta binaka herrira jeistea erabakitzen dute.


Azkenengo bueltan, motorra gidatzen zuenak, non ikusten du falta zen azkenengo eskeletoa hilobiaren harriarekin zetorrela.

Baina hi erotu al haiz edo? Nora hoo harri horrekin?

Hik zer uste duk bada? Gauzak dauden bezala dokumentaziorik gabe atera daitekeela kalera ala?



DENBORAPASA




HIEROGLIFIKOA

ON 

sodio GO

500 ¹/₂ tan.

NOLA ZAUDE?



Zezen plaza zeruan

Bi toreadore hizketan ari ziren elkarrekin zeruan zezen-plazarik izango ote zen ala ez eztabaidatzen:

– Zeren, hik penza ezak, gu zerura igozen garela eta ez dagoela zezen-plazarik. Zer egin behar dugu orduan? Azpertu ederra hartu beharko genuke.

– Aizu! Hortan arrazoi duzu. Gainera, handik ez du inork idazten eta nola jakin zezen-plazarik dagoen ala ez?

Eztabaida bukatzen dute, eta biatarako bat, zezenak harrapatzen du hurrengo hilabetea, zeukaten «korrida» batetan.

Bizirik gelditutakoa lur jota geratzen da berri hori jakitean. Handik lauzpabost hilabetetara eta gaueko hirurak aldera lotan zegoela, abots bat entzuten du:

– Jozeeeee! Jozeeeee! Enzun ezazu ondoooo!

- Baina zu nor zara?
- Nor izango naiz ba? Tonio! Zerutik ari naiz hizketan.
- Ez ezazu esan!
- Bi berri ditut zurezat. Bata ona eta beztea txarra.

- Zein da berri ona?
- Zeruan badaude zezen-plazak.
- Eta txarrak?
- Igandean toreazen duzu.

Maldan gora

Kirol mailan oso jantziak ez ziren bi lagunek tandem bizikleta horietako bat erosten dute eta Azpirozko malda igotzen hasten dira.

Aurrekoak kristoren indarra egiten zuen igo ahal izateko. Ia ezinean, baina gorputza altxa eta Malloak diskotekaraino iristen dira.

– *Ño! Hasieran pisua kendu ez banu, ez gintuan goraino iristen!*

Ba nik... frenatu ez banu, beheraka amilduko ginuzt.

AZALPENAK

Ondo nago, erdi lotan.

HIEROGLIFIKOA


UNAMUNO


ki nurbait».

Inguruan dutan beste gizona iza-

«Nitz sartian mintzatzen naiz.

ZALDI JAUZKA





Gipuzkoako Foru Aldundia
ELGOIBAR HIRIKO UDALA

Laguntzaile



**HITZEGITEN DEN EUSKARA ONA DA
HITZEGITEN EZ DENA TXARRA**

**ELGOIBARKO
IZARRA**

Euskara batzordea